

DERIO
# HAPO
# PGOU
*Geroa eratuz*

# INFORMAZIO-HITZALDIA
# CHARLA INFORMATIVA

APIRILAK 14 ABRIL

Derio

| INFORMAZIO – HITZALDIA | | CHARLA INFORMATIVA |
|---|---|---|
| **18:30** | **ONGI ETORRIA** | BIENVENIDA |
| **18:35** | **ZER DA DERIOKO HAPO?** | ¿QUÉ ES EL PGOU DE DERIO? |
| **18:45** | **PARTE HARTZEKO PROZESUA** | PROCESO DE PARTICIPACIÓN |
| **18:55** | **DERIOKO HAPO: EDUKIAK** | PGOU DE DERIO: CONTENIDOS |
| **19:40** | **GALDERAK ETA HURRENGO PAUSOAK** | PREGUNTAS Y SIGUIENTES PASOS |

# 01 ZER DA DERIOKO HAPO?

## ¿QUÉ ES EL PGOU DE DERIO?

# ZER DA? ¿QUÉ ES?



**HAPO** udalerriaren erabateko **antolamendua** aurrera eramateko oinarrizko tresna nagusia izango da.

**Erreminta juridiko** honek udalerri bateko **lurzoruen eta eraikinen erabilerak** arautzen ditu. Arau juridiko gisa, eskubideak eta betebeharrak ezartzen ditu eta subjektu publiko eta pribatuak lotzen ditu.

---

EL **PGOU** será el instrumento básico y principal de **ordenación integral** del municipio.

Es una **herramienta jurídica** que regula los **usos del suelo y los edificios** de un municipio. Como norma jurídica, establece derechos y obligaciones y vincula a todos los sujetos públicos y privados.

## ZER DA? ¿QUÉ ES?



- **Udalerri osoa** arautuko du (1.014 Ha).
- Sustatzailea **Derioko Udala** da.
  HAPOren sustatzailea Derioko Udala bada ere, 7.000 biztanletik beherako udalerria denez, behin betiko onespena **Bizkaiko Foru Aldundia**ren esku dago.
- **Izaera egituratzailea** (globala eta generikoa) duen dokumentua da.
- **8-12 urteko** indarraldia aurreikusten da.

---

- Regulará **todo el término municipal** (las 1.014 Has).
- El promotor es el **Ayuntamiento de Derio.**
  Si bien el promotor del PGOU es el Ayuntamiento de Derio, al ser un municipio de menos de 7.000 habitantes, la Aprobación Definitiva depende de la **Diputación Foral de Bizkaia**.
- Es un documento de **carácter estructural (global y genérico)**.
- Su previsión de vigencia es de **8-12 años**.

# ZER ARAUTZEN DU? ¿QUÉ REGULA?




HAPOk udalerriaren **lurzorua sailkatzen du:**

- **Hiri-lurzorua** (finkatutako bilbea),
- **Lurzoru urbanizagarria** (hiri-lurzorua hedatzeko eraldatuko dena)
- **Lurzoru urbanizaezina** (landa-lurzorua eta bere ezaugarriengatik babestu beharrekoa)

---

El PGOU **clasifica el suelo** del municipio en:

- **Suelo urbano** (la trama consolidada)
- **Suelo urbanizable** (el suelo natural a incorporar a lo urbano)
- **Suelo no urbanizable** (el suelo rural y protegido por sus valores naturales).

# ZER ARAUTZEN DU? ¿QUÉ REGULA?




HAPOk **udalerri baten lurzorua sailkatzen du** hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa, **lurzorua kalifikatzen du bere erabilera xedatuz** (bizitegikoa, jarduera ekonomikoak, zuzkidurak…) eta **zenbat eraiki ahal izango den ezartzen du** (eraikigarritasuna).

---

El PGOU **clasifica el suelo del municipio** en urbano, urbanizable y no urbanizable, **califica el uso** (residencial, actividad económica, dotacional...) y **determina cuánto se podrá edificar** (edificabilidad).

# ZER ARAUTZEN DU? ¿QUÉ REGULA?




HAPOk **udalerri baten lurzorua sailkatzen du** hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri eta lurzoru urbanizaezin gisa, **lurzorua kalifikatzen du bere erabilera xedatuz** (bizitegikoa, jarduera ekonomikoak, zuzkidurak…) eta **zenbat eraiki ahal izango den ezartzen du** (eraikigarritasuna).

El PGOU **clasifica el suelo del municipio** en urbano, urbanizable y no urbanizable, **califica el uso** (residencial, actividad económica, dotacional…) y **determina cuánto se podrá edificar** (edificabilidad).

Laburbilduz, HAPOk **zer, non eta zenbat** egin daitekeen arautzen du, udalerriko eremu fisikoan.

En definitiva, el PGOU regula **qué, dónde y cuánto** se puede hacer dentro del ámbito físico municipal.

## ZERGATIK DA GARRANTZITSUA? ¿POR QUÉ ES IMPORTANTE?



HAPOk udalerriaren egitura fisikoan (lurzoru eta eraikinak) soilik esku hartzen badu ere, **eragin zuzena** du udalerriaren **ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-garapenean**.

El PGOU, si bien solamente actúa sobre la estructura física del municipio (suelo y edificios), ésta **influye directamente en el desarrollo social, económico y medioambiental** del municipio.

# ZERGATIK DA GARRANTZITSUA? ¿POR QUÉ ES IMPORTANTE?



Laburbilduz, Derioko HAPOk Deriok nolakoa izan nahi duen islatzen duen erabateko ikuspegia sortuko du, bai epe laburrean eta ertainean zein luzean.

---

En definitiva, el PGOU de Derio generará una **visión integral de cómo quiere ser Derio**, tanto a corto, medio como a largo plazo.

## ZER EZ DA HAPO? ¿QUÉ NO ES EL PGOU?

# EZ

HAPOk **ez du arautzen**, esaterako, udalerri baten **enplegu-politika**. Esparru horretan egin dezakeena da aztertzea ea udalerrian jarduera ekonomikoetarako behar adina leku dagoen, eta, beharrezkoa izanez gero, erabilera horretarako espazio berriak aurreikus ditzake.

Era berean, HAPOk ez ditu xehetasunak zehazten, adibidez, ez ditu **autobus-geltokiak** kokatzen, edota **urbanizazio-obrak xehetasunez marrazten**.

# NO

El PGOU **no regula**, por ejemplo, las **políticas de empleo** de un municipio. Lo que puede hacer, en ese campo, es analizar si el municipio cuenta con suficiente espacio para actividades económicas dentro del municipio y, de ser necesario, planificar nuevos espacios para ese uso.

De la misma manera, el PGOU no baja al detalle, por ejemplo, no señala la ubicación de las **paradas de autobús, ni dibuja al detalle las obras de urbanización.**

## ZER MUGA DITU? ¿QUÉ LÍMITES TIENE?

Udal-tresna juridiko bat izanda ere, HAPOk **udalerriaz gaindiko administrazioetatik** datozen eta aintzat hartu behar dituen **hainbat baldintza** ditu.

Beraz, Derioko HAPOk **legeria sektoriala** jaso behar du, bai eta Estatutik eta Eusko Jaurlaritzatik datozen **aplikazio zuzeneko arauak** ere (hirigintza-estandarrak, adibidez), esaterako honako hauei dagozkienak: **itsasertzak, ura, errepideak, lurzoru kutsatuak, ondarea edo telekomunikazioak**. Zehazki, etxebizitzaren esparruan, Eusko Jaurlaritzak **Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG)** bitartez arautzen du HAPOn antola daitezkeen **etxebizitza berrien kopurua**.

A pesar de ser una herramienta jurídica municipal, el PGOU cuenta con **numerosos condicionantes** que provienen de **administraciones supra-municipales** y que deben integrar.

Así, el PGOU de Derio debe incorporar **legislación sectorial**, así como **normas de aplicación directa** (estándares urbanísticos, por ejemplo) que provienen del Estado y de Gobierno Vasco, como por ejemplo la relativa a: **costas, aguas, carreteras, suelos contaminados, patrimonio o telecomunicaciones.** Concretamente en materia de vivienda, Gobierno Vasco regula mediante las **Directrices de Ordenación Territorial (DOT) el número de nuevas viviendas** que se pueden planificar en el PGOU.

## ZER MUGA DITU? ¿QUÉ LÍMITES TIENE?

**Herritarren parte-hartzeari** dagokionez, parte-hartze horrek hainbat ekarpen egin arren, edukiak kontrastatuz eta osatuz, eta, azken finean, plan berria aberastuz, **emaitzak ez dira lotesleak etaezin dira lotesleak izan**, arestian deskribatu mugak direla eta.

Azkenik, **HAPOn aurreikusitakoak aurrera eraman ahal izateko beharrezkoa den faktore sozioekonomikoa** aipatu behar da. Esaterako, gerta liteke HAPOk etxebizitza edo jarduera ekonomikoetarako espazio berriak aurreikustea eta, ordea, horiek planaren indarraldian ez garatzea. Bi kasuetan, egoera ekonomikoagatik eta planarekin zerikusirik ez duten faktoreen ondorioz.

En cuanto a la **participación ciudadana**, sin bien ésta proporcionar múltiples aportaciones contrastando y complementando sus contenidos y, en definitiva, enriqueciendo el nuevo plan, sus **resultados no son y no pueden ser vinculantes** debido a los límites anteriormente descritos.

Por último, cabe mencionar el **factor socioeconómico necesario para que lo previsto en el PGOU se pueda llevar a cabo.** Por ejemplo, el PGOU puede prever nuevas viviendas o nuevos espacios para actividades económicas y, sin embargo, cabe la posibilidad de que éstos no se desarrollen en el plazo de vigencia del plan. En ambos casos, debido a la coyuntura económica y otros factores ajenos al plan.

## ZER FASE DITU? ¿QUÉ FASES TIENE?

0. **HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA** — PROGRAMA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA
1. **INFORMAZIOA** — INFORMACIÓN
2. **AURRERAKINA** — AVANCE
3. **JENDAURREKO ERAKUSTALDIA** — EXPOSICIÓN PÚBLICA
4. **HASIERAKO ONESPENA** — APROBACIÓN INICIAL
5. **JENDAURREKO ERAKUSTALDIA** — EXPOSICIÓN PÚBLICA
6. **BEHIN BEHINEKO ONESPENA** — APROBACIÓN PROVISIONAL
7. **BEHIN BETIKO ONESPENA** — APROBACIÓN DEFINITIVA

Egun Deriok ez du HAPOrik, 2003ko Arau Subsidiarioak baizik. **HAPO idaztea, legez nahitaezkoa den** eta, behin betiko onespenera iritsi arte, **hainbat fase** dituen prozesu luze eta konplexua da.

Derio actualmente no cuenta con el PGOU, sino con Normas Subsidiarias de 2003. La **elaboración del PGOU**, **obligatoria por ley**, consiste en un proceso largo y complejo, con **varias fases** hasta su aprobación definitiva.

# ZER FASE DITU? ¿QUÉ FASES TIENE?

2021ean, Udala Derioko HAPO lantzen hasi da. Herritarrek Parte hartzeko Programarekin 0. Fasea osatu ondoren, **1. Fasea Hirigintza Informazioa** hasi berri da. 1. Fase honetan, **parte hartzeko prozesu publiko baten bitartez, deriotarrei zuzendua, udalerriko premiak jaso eta egiaztatu** ahal izango ditugu. Horiek hurrengo fasean erabilgarriak izango dira, HAPOren Aurrerakina idazteko.




En 2021 el Ayuntamiento comienza la elaboración del PGOU. Completada la Fase 0, con el Programa de Participación Ciudadana, comienza la **Fase 1 de Información Urbanística**. Ésta cuenta con un **proceso participativo público, abierto a toda la ciudadanía deriotarra, para recoger y contrastar las necesidades del municipio**, los cuales servirán para la siguiente fase, de redacción del Avance del futuro PGOU.

# 02 PARTE HARTZEKO PROZESUA
# PROCESO DE PARTICIPACIÓN

## NORTZUK QUIÉNES

**DERION BIZI DIRENAK**

PERSONAS QUE VIVEN EN DERIO

**UDAL -ORDEZKARIAK**

REPRESENTANTES MUNICIPALES

**UDAL -TEKNIKARIAK**

PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL

**DERIO BISITATZEN DUTENAK**

PERSONAS QUE VISITAN DERIO

**DERION LAN EGITEN DUTENAK**

PERSONAS QUE TRABAJAN EN DERIO

**DERIOKO ELKARTEAK**

ASOCIACIONES DE DERIO

# NOLA ETA NOIZ CÓMO Y CUÁNDO

## INFORMAZIO -HITZALDIA
CHARLA INFORMATIVA

**APIRILAK 14** ABRIL
**18:30 – 20:00**
**Kultur Birikan eta interneten bidez (www.hapo-derio.eus)**

## GALDETEGI DIGITALA
CONSULTA DIGITAL

***www.hapo-derio.eus***

**APIRILAK 12** ABRIL
-
**MAIATZAK 12** MAYO

## PAPEREZKO GALDETEGIA
CONSULTA EN PAPEL

**KULTUR BIRIKAN ESKATU ETA EMAN**
SOLICITAR Y ENTREGAR EN EL KULTUR BIRIKA

**APIRILAK 12** ABRIL
-
**MAIATZAK 12** MAYO

## BANAKAKO ETA TALDEKO ELKARRIZKETAK
ENTREVISTAS INDIVIDUALES Y GRUPALES

**ESKATU ELKARRIZKETA**
SOLICITA ENTREVISTA
***www.hapo-derio.eus***

**APIRILAK 12** ABRIL
-
**MAIATZAK 12** MAYO

# *www. hapo-derio.eus*




- **Hasiera**
  Inicio
- **HAPO (informazioa)**
  PGOU (información)
- **Parte hartu**
  Participa
- **Galdetegi digitala (esteka zuzena)**
  Cuestionario digital (enlace directo)
  **Anonimoa**
  Anónimo
- **Dokumentazioa**
  Documentación

## GALDETEGI DIGITALA
## CONSULTA DIGITAL

***www.hapo-derio.eus***

**APIRILAK 12** ABRIL
-
**MAIATZAK 12** MAYO

# **GALDETEGI DIGITALA** CONSULTA DIGITAL

## DERIOKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA

DERIO HAPO PGOU — *Geroa eratuz*

**DERIOKO HAPO EGITEKO PROZESUA HASTEAR DOA**

Fase honetako partaidetza interesa duen ororentzat irekia egongo da, 2021eko apirilaren 12ren eta maiatzaren 12ren artean.

### GALDETEGIA

KULTUR BIRIKAN ENTREGATU BEHARREKOA, **2021EKO MAIATZAREN 12A BAINO LEHEN**

Derioko Udalak 2021ean Hiri Antolamenduko Plan Orokorra lantzeari ekin dio. Herritarrek Parte Hartzeko Programa onartu ondoren, lehenengo fasea hastear doa, Hirigintza Informazioa.

HAPO udalerria antolatzeko tresna nagusia eta funtsezkoa da. Laburbilduz, HAPOk zer, non eta zenbat eraiki daitekeen arautzen du, udalerriko eremu fisikoaren barne. Behin betiko onespenera iritsi arte, hainbat fase dituen prozesu luze eta konplexu bat da. HAPOren sustatzailea Derioko Udala izan arren, 7.000 biztanletik beherako udalerria denez, behin betiko onespena Bizkaiko Foru Aldundiaren mende dago.

Derioko HAPOren fase honetan parte hartu nahi dutenek, modu ezberdinetan egin dezakete: informazio-hitzaldira etorriz (apirilaren 14an, 18:30ean, Kultur Birikan eta webgunean), webgunearen bitartez (www.hapo-derio.eus ) eta paperezko galdetegiaren bitartez (Kultur Birikan jaso eta eman). Epea apirilaren 12tik maiatzaren 12ra arte da. Hitzaldiari dagokionez, izena-ematea beharrezkoa da, www.hapo-derio.eus webgunean. Era berean, norbaitek umeak zein nagusiak zainduz gero, beraiekin etor daiteke. Hitzaldia mistoa izango da, presentziala eta telematikoa, bertaratu ezin direnek edo nahi ez dutenek bide digitaletik egin ahal izateko. Azkenik, hitzaldia elebiduna izango da eta etortzen direnek bai euskaraz bai gazteleraz parte hartu ahal izango dute.



**Zure partaidetza funtsezkoa da, anima zaitez!**

**Generoa**

- O Emakumea
- O Gizona
- O Beste nortasunak

**Adina**

- O < 18
- O 18-29
- O 30-44
- O 45-65
- O > 65

**Nondik parte hartzen duzu?**

- O Arteaga / Larrabarri /Aldekone
- O Rementariñe / Ganbe
- O Teknologia-parkea
- O Derioko beste auzo batzuk
- O Beste industrialde batzuk
- O Beste udalerri bat

**Zein da Deriorekin duzun harremana?**

- O Derion bizi naiz
- O Derio bisitatzen dut
- O Derioko elkarte baten parte naiz
- O Derion lan egiten dut
- O Udal-teknikariak
- O Udal-ordezkariak

www.hapo-derio.eus

**1. Balora ezazu 1etik 5erako eskalan, jarraia datozen gaiekiko adostasun maila:**

1. Guztiz desados · 2. Desados · 3. Berdin zait · 4. Ados · 5. Guztiz ados

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **1. INGURUNE NATURALA** | | | | | |
| Lurzoruren eta azpiegituren artifizializazio-maila handia izan arren, uste duzu Deriok badituela zaindu eta babestu beharreko espazio interesgarriak? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **2. MUGIKORTASUNA** | | | | | |
| Zure ustez, beharrezkoa da HAPOk garraio -nodoekin (trenbide-geltokiak, autobus-geralekuak, etab.) komunikazioa hobetzea, bidegorri eta oinezkoentzako ibilbideen bitartez? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **3. ESPAZIO PUBLIKOA** | | | | | |
| Zure ustez, beharrezkoa da HAPOk udalerriko parke edota berdegune nagusiak zein garrantzitsuenak handitzea? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **4. ETXEBIZITZA** | | | | | |
| Zure ustez, beharrezkoa da HAPOk etxebizitza berriak aurreikustea? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **5. JARDUERA EKONOMIKOA** | | | | | |
| Zure ustez, beharrezkoa da HAPOk industrialdeetarako ala teknologi parkerako lurzoru berriak aurreikustea? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Zure ustez, Derion badago merkataritza- eta zerbitzu-jarduera ekonomiko nahikorik (hirigunean)? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **6. EKIPAMENDUAK** | | | | | |
| Zure ustez, Derion egun dauden ekipamenduak nahikoak dira (hezkuntzakoak, kulturalak, osasunekoak, asistentziazkoak, kiroletakoak eta administratiboak)? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **7. ONDAREA** | | | | | |
| Zure ustez, beharrezkoa da HAPOk eraikinen ondarearen babesa areagotzea? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **8. JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA** | | | | | |
| Zure ustez, beharrezkoa da HAPOk klima-aldaketara arintzeko eta egokitzeko neurriak jasotzea? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| **9. INKLUSIBITATEA** | | | | | |
| Zure ustez, beharrezkoa da HAPOk espazio publikoaren irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea? | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |

**2. Gai hauetatik, adierazi zure ustez HAPOrako lehentasunezkoak izan beharko luketen 3 gaiak.**

- O 1. INGURUNE NATURALA
- O 2. MUGIKORTASUNA
- O 3. ESPAZIO PUBLIKOA
- O 4. ETXEBIZITZA
- O 5. JARDUERA EKONOMIKOA
- O 6. EKIPAMENDUAK
- O 7. ONDAREA
- O 8. JASANGARRITASUNA ETA KLIMA-ALDAKETA
- O 9. INKLUSIBITATEA

**3. Beste ekarpenik egin nahi duzu?**

* Proposamen gehiago badituzu, konta iezaguzu hemen **www.hapo-derio.eus**

## **PAPEREZKO GALDETEGIA** CONSULTA EN PAPEL

**UDALETXEAN ESKATU ETA EMAN**
SOLICITAR Y ENTREGAR EN EL AYUNTAMIENTO

**APIRILAK 12** ABRIL
-
**MAIATZAK 12** MAYO

# **ELKARRIZKETAK** ENTREVISTAS

## *www. hapo-derio.eus*




- **Parte hartu**
  Participa
- **> Elkarrizketak**
  Entrevistas
- **> Eman izena**
  Facilita un contacto
- **Telefonoz**
  Telefónica
- **Euskaraz nahiz gaztelaniaz**
  En euskera o castellano

**BANAKAKO ETA TALDEKO**
**ELKARRIZKETAK**
ENTREVISTAS
INDIVIDUALES Y GRUPALES

**ESKATU ELKARRIZKETA**
SOLICITA ENTREVISTA
***www.hapo-derio.eus***

**APIRILAK 12** ABRIL
-
**MAIATZAK 12** MAYO

# 03 DERIOKO HAPO: EDUKIAK
## PGOU DE DERIO: CONTENIDOS

# DERIOKO HAPOren GAIAK
# TEMAS DEL PGOU DE DERIO

**01 INGURUNE NATURALA**
01 MEDIO NATURAL

**02 MUGIKORTASUNA**
02 MOVILIDAD

**03 ESPAZIO PUBLIKOA**
03 ESPACIO PÚBLICO

***ESPAZIOAK***
*ESPACIOS*

**04 ETXEBIZITZA**
04 VIVIENDA

**05 JARDUERA EKONOMIKOA**
05 ACTIVIDAD ECONÓMICA

**06 EKIPAMENDUAK**
06 EQUIPAMIENTOS

***ERAIKINAK***
*EDIFICIOS*

**07 ONDAREA**
07 PATRIMONIO

**08 KLIMA-ALDAKETA ETA OSASUNA**
08 CAMBIO CLIMÁTICO Y SALUD

**09 INKLUSIBITATEA**
09 INCLUSIVIDAD

***ZEHARKAKO GAIAK***
*TEMAS TRANSVERSALES*

# 01 INGURUNE NATURALA
## 01 MEDIO NATURAL



Ingurune naturalak **lurzoru naturala** eta Derioko **biodibertsitatea babestea** bilatzen du, baita **ingurumen-arriskuak murriztea** eta **natura- eta hiri-paisaiak integratzea.**

Medio natural persigue proteger el **suelo natural y la biodiversidad** en Derio, **minimizar los riesgos ambientales** e **integrar el paisaje natural y urbano**.



# 02 MUGIKORTASUNA
## 02 MOVILIDAD

Mugikortasunak aldameneko udalerriekiko **kanpo-komunikazioa**, zein Derioko **barne-mugikortasuna** hobetzea jasotzen du.

Komunikabide jasangarri eta aktiboenak lehenetsi behar ditu; **oinezkoak** eta **bizikletak**, eta, ondoren, **garraio publikoa**. Era berean, ibilgailu pribatuaren **aparkatze- eta zirkulazio-beharrei** erantzun behar ditu.

Movilidad incluye tanto la **comunicación externa** con los municipios adyacentes, como la mejora de la **movilidad interna** en Derio.

Ésta debe primar los medios más sostenibles y activos: el **peatonal** y la **bicicleta**, seguido del **transporte público**. En paralelo, debe atender también a las necesidades de **circulación y aparcamiento** del vehículo privado.








# 03 ESPAZIO PUBLIKOA
# 03 ESPACIO PÚBLICO



Espazio publikoa hirigintza-aktibo nagusia da, edozein udalerriko **“egongela”. Hiri-parke handiak eta espazio libreak** zein **gertuko parke edota plazak** barne hartzen ditu**.**

El espacio público es el activo urbano por excelencia, es la **“sala de estar”** de cualquier municipio. Incluye desde **grandes parques urbanos y espacios libres** a **parques o plazas de proximidad**.



San Estebez parkea

# 04 ETXEBIZITZA
## 04 VIVIENDA



Etxebizitzaren gaiak Derioko **herritarren etxebizitza-beharrak** asetzea du helburu. **Etxebizitza-mota** ere aztertu nahi du: **etxebizitza txikiagoak, alokairukoak, babesekoak, gazteentzakoak, eredu berriak, etab.**

HAPOk alternatiba ezberdinak aztertuko ditu bizitegi-kuantifikazio ezberdinekin eta bizitegi-garapen berrietarako kokapen ezberdinekin.

El tema de vivienda pretende satisfacer las **necesidades de vivienda de la población** de Derio. Así como examinar el **tipo**: **viviendas de menor tamaño, en alquiler, protegidas, para jóvenes, nuevos modelos de habitar, etc.**

El PGOU contemplará diferentes alternativas con diferente cuantificación residencial y ubicaciones para nuevos desarrollos residenciales.



# 05 JARDUERA EKONOMIKOA
# 05 ACTIVIDAD ECONÓMICA



Jarduera ekonomikoa jarduera bat egin ahal izateko **lurzorua eta eraikuntza aurreikusteari** erreferentzia egiten dio eta Derion bertan **enplegua sortzearekin** lotuta dago.

**Merkataritza, industria, zerbitzuak, lehenengo sektorea, etab.**

Actividades económicas se refiere a la **previsión de suelo y edificación** para que se pueda dar esta **actividad** y está ligada a la **generación de empleo** en el propio Derio.

**Actividad comercial, industrial, servicios, primer sector, etc.**





Parque tecnológico

# 06 EKIPAMENDUAK
# 06 EQUIPAMIENTOS


Colegio Público


Kultur Birika

Ekipamenduek herritarrei **gizarte-ongizateko zerbitzuak** ematen dizkiete eta, nagusiki, honako hauek izaten dira:

- **irakaskuntzakoak (eskolak, ikastetxeak…)**
- **osasunekoak (osasun-zentroak)**
- **soziokulturalak (liburutegia, kultura-etxea, musika-eskola…)**
- **kiroletakoak (polikiroldegiak, kirol-zelaiak…)**
- **asistentziazkoak (zahar-egoitzak)**
- **edo haurreskolak, besteak beste.**

Los equipamientos proporcionan a la población **servicios de bienestar social** y son, principalmente, de tipo:

- **docente (escuelas, colegios…)**
- **sanitario (centros de salud)**
- **socio-cultural (biblioteca, casa de cultura, escuela de música…)**
- **deportivo (polideportivos, pistas deportivas)**
- **asistenciales (residencias de mayores)**
- **o escuelas infantiles (haurreskolak), entre otros.**

# 06 EKIPAMENDUAK
# 06 EQUIPAMIENTOS


Centro de Salud

Planak ekipamenduetarako erabilera eta kokapenak aurreikusiko baditu ere, **batzuk udalez gaindiko beste administrazioen menpe daude** (hezkuntza eta osasuna, Eusko Jaurlaritzaren menpe; edo asistentziazkoak, Aldundiaren menpe).

Si bien el plan preverá usos y ubicaciones para equipamientos, **algunos de ellos dependen de otras administraciones supra-municipales** (educación y sanidad, de Gobierno Vasco; o asistencial, de Diputación).


Cementerio





# 07 ONDAREA
# 07 PATRIMONIO


San Isidro

Ondarearen barne **ondare kulturalaren eta artistikoaren mantentzea** dago, hala nola **eraikin edo hiri-elementu isolatuak edo multzokatuak**; baita hiri-berroneratzeko eta berritzeko eremuak ere.

Patrimonio contempla el **mantenimiento del patrimonio cultural y artístico**, como **edificios o elementos urbanos aislados o en conjunto**, los **restos arqueológicos**, así como las áreas de regeneración y renovación urbana.


San Cristobal


Molino Ibarrola


Seminario


Cementerio Vista Alegre

# 08 KLIMA-ALDAKETA ETA OSASUNA
## 08 CAMBIO CLIMÁTICO Y SALUD




Figura 2. **EUSKALMET, temperaturas máximas para el año 2003**

Klima-aldaketa eta osasuna zeharkako gaia da, **kalitatezko udalerria lortzeko, egungo biztanle zein gerora datozen belaunaldientzat**. Horretarako, **jasangarritasun-alderdi orokorretan** datza, baita **klima-aldaketa arintzean eta klima-aldaketara egokitzean**.

Cambio climático y salud es un tema transversal que vela por **un municipio de calidad no solo para quienes viven aquí y ahora, sino también para las generaciones futuras**. Para ello, contempla **aspectos generales de sostenibilidad**, así como de **mitigación y adaptación al cambio climático**.

# 08 KLIMA-ALDAKETA ETA OSASUNA

## 08 CAMBIO CLIMÁTICO Y SALUD




**ARINTZEA** Derio eta bere herritarrek **isurpenak murrizten** laguntzen dien guztian (HAPOrekin lotutakoa) datza.

**MITIGACIÓN** se refiere a todo aquello que, desde el plan, contribuya a que Derio y su ciudadanía **reduzca las emisiones**.

Bestalde, **EGOKITZEA** gerta daitezkeen **ondorio kaltegarriak aurreikustean** datza, **erantzuteko ahalmena handituz** eta **arrisku klimatikoen aurreko kalteberatasuna murriztuz** (esaterako, uholdeak).

Por otro lado, **ADAPTACIÓN** se refiere a que Derio, desde el PGOU, se **anticipe a potenciales efectos nocivos**, aumentando la **capacidad de respuesta** y **reduciendo su vulnerabilidad** frente a los **riesgos climáticos** (por ejemplo, inundaciones o el incremento del nivel del mar).

# 09 INKLUSIBITATEA
# 09 INCLUSIVIDAD



Ikuspegi barneratzailea Derioko HAPOn zeharkako gaia da, **beharrezko ikuspuntu zehatz batzuk** prozesuan barneratzea bilatzen duena. Besteak beste, **emakumeen ikuspuntua, nagusiena, haurrena, mugikortasun urriko pertsonena**, etab.

Azken finean, "beste betaurreko batzuk janztea" da, HAPOren bitartez gauzatuko dugun **etorkizuneko Deriok, herritar guztien premiak erantzun ahal izateko**.

Perspectiva inclusiva es un tema transversal del PGOU de Derio que pretende aportar una serie **de miradas específicas y necesarias**. Entre otras, el punto de vista de las **mujeres**, las **personas mayores**, las **niñas y niños**, las **personas con movilidad reducida**, etc.

En definitiva, "ponernos otras gafas" para que **el Derio futuro que planifica el PGOU pueda responder a las necesidades del conjunto de la ciudadanía.**








DERIO
HAPO
PGOU
*Geroa eratuz*

# Eskerrik asko!

www.hapo-derio.eus

Derio